# " LOS NUEVOS RETOS DE LA DEMOCRACIA PARTICIPATIVA MUNICIPAL"

PROPUESTAS Y COMPROMISOS
para el año 2002

# "PARTAIDETZAKO UDAL DEMOKRAZIAREN ERRONKA BERRIAK"

2002. urterako PROPOSAMEN ETA KONPROMISOAK



La Alcaldía, por medio de la Delegación de Participación Ciudadana y con la colaboración de distintos Departamentos, viene impulsando desde hace años dinámicas de participación, consulta y debate que buscan incorporar la opinión ciudadana a la gestión municipal, en el convencimiento de que sólo desde la transparencia y el consenso se puede avanzar en la construcción de una ciudad más democrática y más cohesionada.

Alkatetza, Herritar Partaidetzako Ordezkaritzaren bitartez eta hainbat departamenturen laguntzaz, urteak direla hasi zen partaidetza, kontsulta eta eztabaida dinamikak bultzatzen herritarren iritzia udal gestiora erakartzeko, bete-betean sinistuta dagoelako soilik gardentasuna eta adostasuna abiapuntu hartuta aurrera egin daitekeela hiri demokratikoago eta kohesionatuagoa eraikitzerantz.

Hoy, **la Democracia Municipal** en cualquier ciudad Europea se enfrenta a nuevos retos que parten de la constatación de que los viejos sistemas de relación entre los ciudadanos con el Ayuntamiento y las Instituciones, de funcionamiento interno de éstas y de control de calidad de los servicios, necesitan un salto cualitativo que facilite la colaboración y el compromiso de los donostiarras con el desarrollo de su ciudad.

Este planteamiento engarza con el proyecto "San Sebastián, Ciudad Educadora", que busca **educar en valores.** Así, desde la educación se quiere fomentar **la cultura de la participación** en un año de gran trascendencia para nuestra ciudad en el que se afrontan retos que precisan de las aportaciones de todos: el Plan Estratégico, la Revisión del PGOU o la aplicación de Convenios interinstitucionales que serán claves para el futuro de San Sebastián. Pero "repensar la ciudad" exige también "repensar la democracia ciudadana".

Egun Europako ezein hiritako **Udal Demokrazia** erronka berrien aurrean dago, egiaztaturik baitago herritarren eta udalaren zein erakundeen arteko harreman sistema zaharrak, horien barne funtzionamendua eta zerbitzuen kalitatearen kontrola jauzi kualitatibo baten beharrean direla, donostiarrok hiria garantzeari laguntza eta konpromisoa erants diezazkioten.

Planteamendu hori "Donostia, hiri hezitzailea" proiektuari loturik dago, honek **balioetan hezi** nahi du eta. Horrela, hezkuntzatik **partaidetzaren kultura** sustatu nahi dugu gure hiriarentzako une esanguratsuan garelako, denon ekarriak behar dituzten erronkei aurpegi eman behar baitzaie: besteak beste, Estrategi Plana, Plan Orokorra egokitzea edo erakunde arteko komenioak aplikatzea, Donostiaren gerorako oinarri-oinarrizko izango direnez gero.



Venimos insistiendo en el compromiso de hacer de San Sebastián **"una ciudad de escala humana"** y ello significa una apuesta a favor de la cohesión social, de la mejora en la calidad de vida para todos y todas, la especialización cultural y las políticas de solidaridad. Sin olvidar la necesidad de acercar la democracia y los procesos de decisión a los donostiarras.

Para ello, partimos de los objetivos señalados en el Programa de Gobierno, y en su desarrollo vemos la necesidad de plantear iniciativas de vanguardia dirigidas a profundizar en la democracia municipal. Y mediante la potenciación de los cauces de consulta y participación ciudadana ya existentes (Foro Cívico, Consejos Asesores Sectoriales, reuniones de información ciudadana, encuestas, etc...) y la puesta en marcha de otros mecanismos que respondan a los nuevos retos, esperamos consolidar el proyecto de **"ciudad educadora, democrática y participativa".** Un proyecto ideado desde nuestra realidad local y contrastado a nivel internacional en diversos foros a los que San Sebastián está asociada junto con otras ciudades también comprometidas en complementar el sistema representativo con mecanismos de democracia participativa.

Porque en el inicio del siglo XXI, garantizar el normal funcionamiento de la democracia formal no basta. Es preciso **reinventar la democracia cada día para superar la apatía.** En una sociedad en la que crece el desinterés y escepticismo ante la política en general, es necesario plantear que el reto de la democracia consiste en abrir nuevos cauces y fórmulas para fomentar la participación y la convivencia entre los ciudadanos.

Behin eta berriro aipatu dugu Donostia **"pertsonaren neurriko hiria da"** eta horrek esan nahi du apustu egiten duela gizarte kohesioaren alde, denon bizi kalitatea hobetzearen alde, kultur espezializazioaren alde eta elkartasunen politiken alde. Jakina, ahaztu gabe beharrezko dela donostiarrongana helaraztea demokrazia eta erabakitzeko prozesuak.

Horretarako, Gobernu Programan adierazitako helburuetatik abiatu gara eta horiek gauzatzerakoan jabetu gara abangoardiako ekimenak planteatu behar direla udal demokrazian sakontzeko. Eta egun ditugun herritarrarentzako kontsulta eta partaidetza bideak (Herritar Foroa, sektoreetako kontseiluak, informazio bilkurak, inkestak eta abar) indartuta eta erronka berriei erantzuteko bestelako mekanismoak abiarazita, espero dugu **"hiri hezitzaile, demokratiko eta partaidetzazkoa"** proiektua sendotzea. Proiektua sortu dugu bertako errealitatea oinarri, baina Donostia partaide den hainbat nazioarteko forotan alderatu dugu ordezkaritza sistema partaidetzazko demokraziaren mekanismoekin osatzearekin konprometituriko beste hiri batzuekin.

XXI. mendearen hasieran demokrazia formalaren funtzionamendu normala bermatzea aski ez delako. Beharrezkoa da **egunero demokrazia asmatzea apatia gainditzeko.** Gizartean politikarenganako interesik eza eta eszeptizismoa oro har handituz doanez gero, behar-beharreko da planteatzea demokraziaren erronka datzala herritarren partaidetza eta elkarbizitza sustatzeko bide eta formula berriak irekitzean.

No es suficiente con tener una Concejalía de Participación Ciudadana o un Reglamento sobre la participación, sino que se han de concebir con valentía y poner en práctica procesos de democracia participativa, que es algo diferente. **Innovar la democracia local** conlleva favorecer la intervención de los ciudadanos y de los colectivos en la gestión de servicios, en la definición y contenidos de los proyectos e incluso en la programación del gasto. Se trata de **ganar credibilidad** y poner en valor los derechos y deberes de la Ciudadanía y de la Administración.

Ez da nahiko Herritar Partaidetzako Zinegotzigoa edo partaidetza Araudia izatea, ausardiaz partaidetzazko demokraziaren prozesuak asmatu eta abiarazi baizik, zeharo desberdinak baitira. **Udal demokrazia berritzeak** berarekin dakar herritarrek eta taldeek esku hartzea zerbitzuak gestionatzen, proiektuak eta horien edukiak definitzen eta are gastua programatzen ere. Kontua da **sinesgarritasuna** irabaztea eta merezi duten balioa ematea herritarren eta administrazioaren eskubide eta eginbeharrei.



Pero no es posible lograr nada de esto si el compromiso no es colectivo. Porque el desarrollo de este compromiso precisa la participación de ciudadanos y ciudadanas, de las organizaciones cívicas, de los agentes económicos, sociales y culturales, de profesionales, etc. Y vamos a necesitar imaginación y clara voluntad política para avanzar en las anteriores consideraciones.

No será tarea fácil desarrollar las experiencias que se exponen a continuación. Pero por encima de la desconfianza o del posible rechazo partidista, vamos a tratar de ir articulando un sistema de propuestas que actúen como instrumento normalizador, integrador y favorecedor de la cohesión social de los y las donostiarras.

## Acciones a desarrollar en 2002.

Además de las actuaciones desarrolladas por los diferentes departamentos, ya integradas en la estructura municipal de participación ciudadana, presentamos a continuación otras que planteándose por primera vez se incorporan a diferentes niveles en este marco, con el fin de avanzar hacia un proyecto de ciudad compartida y solidaria que ilusione a los donostiarras.

### Intervención integrada en el territorio

1. Aplicación del "**Plan** de participación para el desarrollo **Comunitario** en Alza".
*Ante el conjunto de proyectos y actuaciones de todo tipo que se han previsto (27) para ese territorio y que supondrán una profunda transformación y regeneración del barrio, se plantea el desarrollo de un Plan Comunitario para Alza.*

Baina ezin ezer lortu konpromisoa denona ez bada. Konpromiso hori garatzeak eskatzen duelako denok partaide izateko: herritarrak; horien erakundeak; ekonomia, gizarte eta kultura eragileak; profesionalak eta abar. Eta irudimena zein borondate politiko argia beharko ditugu aurreko gogoetak aurrera eramango baditugu

Ez da zeregin samurra izango segituan azalduko ditugun esperientziak gauzatzea. Baina mesfidantzaren edo partiduen gaitzespenaren gainetik ahaleginduko gara proposamen sistema bat artikulatzen donostiarron gizarte kohesioaren elementu normalizatzaile, integratzaile eta bideratzaile gisara jokatzeko.

## 2002.ean gauzatuko diren ekintzak

Udal sailen eginez gain, herritar partaidetzako udal egituran dagoeneko barneraturik baitaude, segituan beste batzuk aurkeztuko ditugu, lehenengo aldiz plazaratu arren, marko horretako hainbat mailatara gehitzekoak, donostiarrak ilusioz beteko dituen hiri partitu eta solidario baren proiekturantz aurreratzeko asmoz.

### Lurraldean integraturiko interbentzioa

1. "Altzako komunitate garapeneko partaidetza Plana" aplikatzea.
*Lurralde horretarako proiektaturiko egitasmo eta jardueren multzoa (27), auzoaren eraldaketa eta berritze sakonak ekarriko baititu, Altzarako Plan Komunitario bat garatzea planteatzen da.*

*Este proceso de revitalización no se puede hacer de espaldas a los vecinos y a los colectivos existentes. De ahí la necesidad de aplicar una metodología que permita, de forma coordinada e integrada, el protagonismo real de la comunidad en la concertación de las operaciones, tanto urbanísticas como programáticas y de servicios que el Ayuntamiento tiene pensado impulsar.*

*El trabajo lo llevará a cabo un equipo de la Universidad en coordinación con el Gabinete de Participación Ciudadana.*

**Descentralización y Organización municipal**

2. Constitución de una **Entidad Local Menor** en el barrio de **Igeldo** que permita la descentralización administrativa.
*Desde hace dos años una comisión formada por una representación de vecinos del barrio donostiarra de Igeldo y el Ayuntamiento de San Sebastián, trabajan en la elaboración de una propuesta consensuada que permita la creación de un organismo de gestión descentralizada para dicho territorio.*

*Bizkortze prozesu hori ezin da gauzatu hango auzotarrei eta taldeei bizkar emanda. Horra hor zergatik den behar-beharrezko halako metodologia bat erabiltzea non modu koordinatu eta integratuan benetan protagonismoa emango zaion komunitateari Udalak bultzatu nahi dituen ekintzak urbanistikoak, programatikoak eta zerbitzuetakoak kontzertatzerakoan.*

*Lana unibertsitateko talde batek gauzatuko du, Herritar Partaidetzako Kabinetearekin elkarlanean.*

**Deszentralizatzea eta udal antolamendua**

2. **Igeldon toki entitate txikiagoa** eratzea administrazio deszentralizatzea bideratzeko.

*Urteak dira Donostiako Igeldo auzoko biztanleen batzorde ordezkari bat eta Donostiako Udala elkarlanean ari direla lanean proposamen adostua aurkezteko eremu hori modu deszentralizatuan gestionatzeko organo bat sortzeari begira.*



*Igeldo, como comunidad vecinal diferenciada, reivindica la gestión directa de un conjunto de materias y competencias, con su presupuesto, algo que se posibilitará con la aprobación en el presente año del expediente de constitución de la Entidad Local Menor de Igeldo, siguiendo los procedimientos democráticos establecidos por la legislación vigente.*

3. Elaboración de una **"Carta Ciudadana"**, sobre los principios, derechos y deberes que corresponden a las partes y que deben regir la relación entre el Ayuntamiento donostiarra y la Ciudadanía.
*La ciudad es un espacio colectivo que pertenece a sus habitantes, que tienen derecho a encontrar las condiciones óptimas para su realización. Las autoridades municipales debemos comprometernos para garantizar la prestación en condiciones de todo un conjunto de Servicios públicos de modo eficaz y transparente. Sin duda, esto significará la adopción de importantes cambios, tanto de atención al público como organizativos, para el propio Ayuntamiento.*

*Igeldo, auzo komunitate berezi moduan, aldarrika ari da hainbat gai eta eskuduntza zuzenean gestionatu ahal izatea eta hori lortuko da aurten Igeldoko Toki Entitate Txikiagoa eratzeko espedientea onartuta indarreko legeek xedaturiko prozedura demokratikoen arabera.*

3. "**Herritarraren Gutuna**" prestatzea Donostiako Udalaren eta herritarren arteko harremana gobernatu behar duten hastapen, eskubide eta zereginak gaitzat hartuta.

*Hiria espazio kolektiboa da, biztanle guztiona, den-denek beren burua errealizatzeko baldintzarik egokienak topatzeko eskubidea dutela. Udal agintariek konpromisoa geure gain hartu behar dugu eta zerbitzu publiko hurbilago, eraginkorrago eta gardenago bermatu. Zalantzarik ez, horren ondorioz aldaketa muntadunak abiarazi beharko ditugu Udalean bertan nahiz jendea hartzerako zerbitzuetan, bai barne antolamenduan.*



*La Carta, que definirá la condición de "ciudadanía", servirá para renovar el compromiso del Ayuntamiento y de su Gobierno Municipal con los ciudadanos y ciudadanas de San Sebastián, explicitando sus derechos y situándolos en el centro de la función pública.*
*Será preciso debatir y tramitar la iniciativa en sesión Plenaria y abrir un período de información y debate ciudadano*

*Gutunak, herritartasuna zer den definituta, udal Gobernuak Donostiako herritarrekin hartua duen konpromisoa berretsiko luke, herritarrok jarduera publikoaren erdigunean eta ardatzean jarrita.*

*Ekimena Udalbatzak eztabaidatu eta izapidetu beharko du eta, gero, jende aurrean ikusgai jarriko.*

**Presupuesto participativo.**

4. Aplicación de **metodologías participativas** para la elaboración del borrador del **Presupuesto Municipal** de 2003.

*En los últimos años se han abierto vías de consulta y participación de colectivos y entidades en el proceso de elaboración de los presupuestos (convocatoria del Foro Cívico, reuniones con asociaciones ciudadanas, etc.). Sin embargo, los resultados no han sido los deseables. A la vista de las demandas expresadas y de los fallos observados, se presentará en breve un planteamiento de cara a la elaboración del proyecto de presupuesto de 2003, con un carácter más abierto y participativo.*

*Esta iniciativa se inspira en experiencias desarrolladas en diversas ciudades europeas y latinoamericanas, que contrastadas en el Observatorio Internacional de Democracia Participativa, recogemos y adaptamos de forma progresiva a nuestra realidad. En el futuro, su desarrollo vendrá determinado por la práctica que entre todos seamos capaces de consensuar.*

**Partaidetzako aurrekontua**

4. 2003.eko **udal Aurrekontua** prestatzeko partaidetza metodologiak erabiltzea.

*Azken urteotan bideak abiarazi ditugu talde eta erakundeek aurrekontuak prestatzeko jardunbidean iritzia emateko eta parte hartzeko (Herritar Foroa deitzea, herritar elkarteekin biltzea...). Halere, emaitzak ez dira izan nahi adinakoak. Aurkezturiko eskakizunak eta antzemandako hutsak aztertuta, laster beste planteamendu bat aurkeztuko dugu 2003.eko aurrekontu proiektua prestatzeko, askoz ere zabalago eta parte hartze handiagokoa.*

*Ekimen honek abiapuntu hartzen du Europako eta Hego Ameriketako hainbat esperientzia, Partaidetzako Demokraziaren Nazioarteko Begiratokian kontrastaturik egonda, geure errealitaterako hartzen eta egokitzen ditugunak. Gerokoan horiek gauzatuko dira denon artean adosteko gai izango garen ariaren arabera.*

### Civismo

5. Desarrollar una **campaña ciudadana sobre "el civismo**, el respeto a la ciudad y la educación en valores".

### Zibismoa

5. **Herritar ekimen** bat gauzatzea "**zibismoa**, hiriarenganako begirunea eta balio hezkuntza" gai hartuta.



*La presente iniciativa se enmarca en la apuesta decidida de este Ayuntamiento por la educación en valores, por promover una ciudadanía crítica y solidaria, participativa y comprometida. Todo ello para lograr una mayor cohesión social y la mejora en la calidad de vida.*

*Con esta campaña, el Ayuntamiento pretende impulsar la idea de un pacto cívico, de un espacio de convivencia en el que administración y ciudadanía podamos trabajar juntos para poner en valor las conductas cívicas de respeto al medio urbano, de modo que entre todos impidamos el deterioro de la ciudad como consecuencia de comportamientos antisociales.*

*Ekimen horrek osatzen du Udal honek egindako apustu ausarta, herritar kritiko eta solidarioak, parte hartzaileak eta konpromiso zaleak lortzearen aldekoa, helburu izanik gizarte kohesioa handiagoa eta bizi kalitatea hobetzea.*

*Kanpaina dela bitarte Udalak herritar hitzarmen halako bat bultzatu nahi du, elkarbizitzarako gune bat administrazioak eta herritarrek elkarrekin lan egiten ekiteko hiri ingurua errespetatzeko herritar jokabideei behar duten itzala aitortzeko asmoz, denok elkar hartuta eteteko gure hirian gutxiengo batek duen jokabide gizarte aurkakoak sortutako hondamena.*

*Extender las actitudes cívicas, educar en la responsabilidad y el respeto a la ciudad, será el objetivo de esta Campaña Interdepartamental (Educación, Sanidad y Medio Ambiente, Guardia Municipal, Mantenimiento Urbano, Participación y Barrios y Alcaldía).*

*Hiritar jarrerak hedatzea, hiriarenganako begirunean heztea izango da helburua sail (Hezkuntza, Osasun eta Ingurumena, Udaltzaingoa, Hiri Mantentzea, Partaidetza, Auzoak eta Alkatetza) arteko kanpaina horretan.*

5. **Dictamen Ciudadano** sobre la problemática del ruido y los comportamientos contrarios al Civismo en la Parte Vieja. (Núcleos de Intervención Participativa. **NIP**).

*Mediante un procedimiento innovador, con reuniones para la reflexión y el debate, las partes implicadas (vecinos, comerciantes, hosteleros y usuarios...) podrán presentar sus puntos de vista ante 100 personas elegidas al azar que, tras un proceso de formación plural y de deliberación colectiva, emitirán un dictamen sobre los problemas de la Parte Vieja y del ocio nocturno.*

6. **Herritarren irizpena** Parte Zaharreko zarata eta herritar elkarbizitzaren aurkako jokabideak direla eta. (Partaidetzako Interbentzio Nukleoak. **PIN**)

*Prozedura berriztatzaile bat dela bitarte, gogoeta egin eta eztabaidatzeko bileren bidez, eragindako aldeek (auzokide, dendari, ostalari eta erabiltzaile...) beren iritziak aurkezte izango dute zoriz aukeraturiko lagunen aurrean, eratze eta eztabaida prozesu demokratiko askotariko eta kolektiboa gauzatuta, Parte Zaharreko arazoen gaineko irizpena emango dutela.*



*La calidad de vida de los vecinos del barrio se ve perjudicada por la concentración de establecimientos de hostelería y por el papel que la zona desempeña como lugar de esparcimiento.*
*Esta metodología pretende obtener iniciativas que puedan servir para conciliar visiones e intereses, en principio, contrapuestos. Este dictamen ciudadano se producirá como culminación de los trabajos del NIP antes del verano de 2002.*

**Participación y Jóvenes: HIRIA eta haurrak**

7. Apertura de cauces para que **niños y jóvenes** puedan participar en el proceso de elaboración del nuevo **Plan Estratégico.**
*La elaboración del nuevo Plan Estratégico durante el presente año conlleva la creación de cauces para la participación de entidades, agentes sociales y ciudadanos. Se trata de obtener la implicación colectiva para recoger las aportaciones e ideas de los donostiarras en la determinación de los ejes y proyectos que compondrán el Plan Estratégico para esta década (2001-2010).*

*Auzo horretako lagunen bizi kalitateak kalte izaten ditu ostalaritza etxe gehiegi egotea eta alde hori aisialdian oso bisitatua izatea.*

*Metodologia honek proposamenak lortu nahi ditu hasiera batean kontrakarreko eman dezaketen iritzi eta interesek elkar hartzeko baliagarriak. Herritar irizpen hori PINen lanen gailurra izango da 2002.eko uda aurretik.*

**Partaidetza eta gazteak: HIRIA eta haurrak**

7. Guneak abiaraztea **haurrek** eta **gazteek** parte har dezaten **Estrategi Plan** berria prestatzen.
Aurten Estra*tegi Plan berria* prestatu nahiak berez dakar herritar, erakunde eta eragileek parte hartzeko bideak jarri beharra. *Kontua da inplikazio kolektiboa sorraraztea donostiarron ekarri eta ideiak jasotzeko hamarkada honetako Estrategi Plana osatuko duten ardatz eta proiektuak zedarritzeko.*



*Inspirado en la línea de trabajo que busca incorporar la visión de los jóvenes al proceso de toma de decisiones por parte del Ayuntamiento, el nuevo Plan Estratégico abrirá una línea de reflexión hacia la juventud para que por medio de grupos de trabajo y encuestas específicas, podamos integrar su opinión en el conjunto de propuestas ciudadanas.*

*Gazteenen ikuspegia ere udal erabakietara erakartzeko lan lerroa oinarri, Estrategi Plan berriak gazteentzako gogoeta ildo bati ekingo dio, lan taldeak eta inkesta espezifikoak direla medio beren ikuspegia ere gainerako herritarren proposamenetara ekartzeko.*

8. "**Audiencia Pública** para chicos/as (de 11 a 17 años) en temas de **Movilidad**".

*Interesa mucho conocer el diagnóstico y los posicionamientos de los más jóvenes en una materia especialmente sensible y hasta polémica para los donostiarras en su relación con el Ayuntamiento: los modos de transporte.*

8. "Gazteentzako (11-17 urte) **Entzunaldi irekia mugikortasun** gaiak direla eta"

*Interesgarri da gazteenen diagnostikoa eta jarreren berri izatea gaia oso berezia delako, are eztabaida sortzailea ere, donostiarrok Udalarekin duten harremanari gagozkiola.*



*En colaboración con el Ayuntamiento de Barcelona hemos puesto en marcha un proceso de trabajo dirigido a la reflexión de adolescentes sobre la problemática de la Movilidad-Sostenibilidad. Chicos y chicas están informándose y discutiendo acerca de la movilidad en centros escolares, asociaciones e Internet, y consensuando propuestas sobre el transporte público, las bicicletas, las peatonalizaciones, que presentarán en la Audiencia Pública que se celebrará en el Salón de Plenos del Ayuntamiento en Mayo.*

**Otras propuestas**

). Puesta en funcionamiento de la figura cívica de la **Tutoría de parques y jardines.**

*Bartzelonako Udalaz batera lan jardun bat abiarazi dugu nerabeek gogoeta egin dezaten mugikortasuna eta jasangarritasuna gai hartuta. Neska-mutilak informazio biltzen eta eztabaidan ari dira mugikortasuna dela-eta nahiz ikastetxeetan, nahiz elkarteetan, nahiz Interneten, proposamenak adosteko asmoz garraio publikoa, bizikletak, oinezkoentzako aldeak gai hartuta, maiatzean Udalbatzarrean aurkeztuko dituztela Entzunaldi Irekian.*

**Bestelako proposamenak**

9. **Parke eta lorategien tutoretza** herritar ardura indarrean jartzea.



*Esta singular iniciativa está contemplada en el Documento del "Plan Verde" y busca la corresponsabilización de colectivos ciudadanos en las labores de tutelar el estado y funcionamiento de los parques y jardines. Así, la figura del tutor colectivo se otorga a un centro escolar, entidad de vecinos, jubilados o asociación próxima a un parque mediante la formalización de un Convenio Verde a suscribir con el Ayuntamiento.*

*Ekimen berezi hori "Plan Berdea" deritzon dokumentuan jasota dago eta herritar taldeak erantzule ere egin nahi ditu parke eta lorategien egoera zaintzen. Horrela, talde tutoretza parke inguru hartako eskola edo auzo, erretiratu, auzo edo bestelako elkarte bati, Udalarekin izenpetu beharreko Hitzarmen Berdea dela bitarte.*

*De esta manera el tutor colabora comprometidamente en dinamizar, supervisar, concienciar al resto de vecinos y usuarios, trasladando a los responsables del Departamento Municipal los problemas y las carencias que detecte.*

*Horrela tutoreak laguntzen du dinamizatzen, begiratzen eta gainerako auzoko zein erabiltzaileak jabearazteko hitz emanda, udal sail arduradunari arazo eta beharren beri emanda.*

10. **Procesos consultivos** a vecinos y personas interesadas en **proyectos de reurbanización o remodelación** de sus áreas de residencia.

10. **Bizitokiak berrurbanizatu edo berregokitzeko proiektuez** interesa erakusten duten auzokoei eta gainerako pertsonei **galdetzeko prozesuak.**



*En los últimos años hemos desarrollado distintas experiencias dirigidas a consultar e implicar a los vecinos en el diseño de las nuevas calles peatonales o más recientemente, y en el marco de una iniciativa de participación infantil, convocando a los "usuarios del Parque de Araba" para definir su remodelación. Lo mismo se puede decir de las reuniones con los vecinos del barrio de Bidebieta para consensuar las características del futuro parque-plaza a ejecutar junto a la Iglesia, o las negociaciones con los sectores del barrio del Antiguo para rediseñar la calle Matia.*

*Azken urteotan hainbat esperientzia gauzatu dugu auzokoei galdetzeko eta partaidetza emateko oinezkoentzako kale berriak diseinatzerakoan edo, berrikiago, haur partaidetzako ekimen batean, "Arabako parkearen erabiltzaileei" deitu baikenien parkea nola birmolda zitezkeen jakiteko edo Bidebietako auzokideekin bilduta eliza ondoan egin beharreko parke-plazaren ezaugarriez galdetzeko.*

*Pues bien, iniciamos el año 2002 con otro proceso de participación abierto a los vecinos de las calles afectadas por las obras del aparcamiento subterráneo de la Calle Reyes Católicos. La experiencia consistirá en informar, consultar, debatir y concretar con ellos los detalles de la reurbanización de aceras y calzadas, así como el funcionamiento de las terrazas, los usos de los espacios públicos, la ordenación de la recogida de basuras, etc.*
*Ese mismo sistema será utilizado en cada una de las actuaciones de envergadura que supongan tomas de decisiones que afecten a la vida de los vecinos de las áreas afectadas.*

*Beraz, 2002. Urteari heldu diogu partaidetza prozesu ireki bati Errege-Erregina Katolikoen kaleko lurpeko aparkalekuko lanek erasandako auzokoekin. Esperientziaren muina izango da haiei argibideak ematea eta haiekin eztabaidatu eta zehaztea nola urbanizatuko ditugun espaloi-galtzadak, baita terrazen funtzionamendua, gune publikoen erabilera, zabor bilketa nola arautu...*

*Sistema bera erabiliko da garrantziko ekintza guztietan, baldin eta hartu beharreko erabakiek eragina izango badute erasandako aldeetako auzokoen bizitzan.*

11. Debate con las entidades culturales y los Grupos de Concejales para decidir el futuro del **Museo San Telmo**.
*Sin más dilación tenemos que abordar el destino museístico y la rehabilitación del magnífico edificio de San Telmo. Y esta decisión exige por su trascendencia un debate participativo y un consenso político y ciudadano amplios.*

11. Kultur erakundeekin eta udal talde politikoekin eztabaidatzea **San Telmo museo**aren etorkizuna.
*Gehiago luzatu gabe, San Telmo eraikin paregabearen museo erabilerari eta zaharberritzeari heldu behar diegu. Eta erabakiak, haren eraginagatik, denok partaide garela eztabaidatzeko eskatzen du, politikariek eta herritarrek adostasun handia* lortzea.



*Así, tras la presentación por parte del Concejal Delegado de Cultura y del Director del Museo San Telmo de una propuesta para definir los usos y contenidos del nuevo proyecto museístico, se ha iniciado la discusión en la que participan los Grupos de Concejales y distintos colectivos culturales.*
*A la vista del rechazo que ha suscitado el documento "San Telmo, Museo de Ciudad", se abre un proceso de reflexión en el que, con el asesoramiento de especialistas, se garantice el respeto a la opinión de la mayoría municipal, de acuerdo con las entidades culturales interesadas.*

Marzo de 2002

*Kulturako zinegotzi ordezkariak eta San Telmo museoko zuzendariak museo proiektu berriaren erabilera eta edukiak definitzeko proposamena aurkeztuta, eztabaidatzeari ekin zaio zinegotzi taldeekin eta bestelako kultur taldeekin.*

"San Telmo, Donostiaren museo" *dokumentuak sortutako gaitzespena ikusita, erabaki prozesu bati ekin diogu, adituen aholkua lagun, udal gehiengoaren iritzia bermatzeko partedun kultur erakundeekin batera.*

2002.eko Martxoa

Odón ELORZA